



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 29a

87. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren txosten eta administrazio-eginbideak azkartu ditzan, ahal den neurrian murrizte aldera Estellerriko azpiestazioa eta linea elektrikoa ezartzeko REEren proiektuaren izapideen espediente guztiak. Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 8/2020 Errege Lege-dekretua lehenbailehen betearaz dezan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Daniel Ortégaren gobernu sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldeztan. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 14/2015 Foru Legean jaso dezan emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat, gurasoek edo seme-alabek familia-ingurunetik kanpo emakume baten aurka baliatutako indarkeria fisiko, psikologiko, ekonomiko edo sexuala dela-eta. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babes ematen baitio Nafarroako kultur sektoreari. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Bihotzaren Arloan ustez izandako delitua dela-eta Osasun Departamentuak izandako jokabideari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, nazioartean mugitzeko beka bat lortu duten ikasleei COVID-19aren aurkako txertoa jartzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Nafarroako eta Errioxako gobernuek osasun-arloan sinatutako hitzarmenari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Nafarroan espezie eta bektore inbaditzaileek osasunerako dakarten arriskua kontrolatzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).
- Galdera, sexu-transmisiozko infekzioen kasuak igotzea ekiditeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (12. or.).
- Galdera, lantokiak ikuskatzeko eta langileen osasunerako eskubidea bermatzeko neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, foruzainen lanpostuen deialdiak zabaltzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, herritarrentzat Oinarrizko Osasun Laguntza eskuragarri dagoela bermatzeko neurriei buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, Mutiloako instalazio berrietan mantenduko diren Refenako langileei eta egiturari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko ekainaren 24an egindako bileran, erabaki zuen Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Pode-

mos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten, eta 2021eko ekainaren 10eko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, zeinaren bitartez aldatzen baita 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2021eko ekainaren 24an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu zuten eta 2021eko ekainaren 10eko 77. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/PRO-00011).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena presazko prozeduraz izapide-tu dadin.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **zortzi egun balioduneko epe bat hasiko da, 2021eko irailaren 10eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izateko proposamenari.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da egin behar diren txosten eta administrazio-eginbideak azkartu ditzan, ahal den neurrian murrizte aldera Estellerriko azpiestazioa eta linea elektrikoa ezartzeko REEren proiektuaren izapideen espediente guztiak.

JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita egin behar diren txosten eta administrazio-eginbideak azkartu ditzan, ahal den neurrian murrizte aldera Estellerriko azpiestazioa eta linea elektrikoa ezartzeko REEren proiektuaren izapideen espediente guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayen jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, egin behar diren txosten eta administrazio-eginbideak azkartu ditzan, ahal den neurrian murrizte aldera Estellerriko azpiestazioa eta linea elektrikoa ezartzeko REEren proiektuaren izapideen espediente guztiak.

Mugikortasun-azpiegiturak, hidraulikoak, datu-azpiegiturak eta energia-sorkuntza nahiz -garraio-

koak garatzea funtsezkoa da lurralde-garapen kohesionatua lortzeko eta kalitatezko inbertsioak eta balio erantsi handikoak erakartzeko.

Estellerriko Merindadea –azpiestazio elektrikorik ez duen Nafarroako eskualde bakarra– gabezia handia pairatzen ari da energia elektriko azpiegiturei dagokienez, eta horren ondorioz aldiro gertatzen dira etenak –mikroetenak deituta–, kalte egiten dietenak eskualdeko herritarrei oro har eta eremuko enpresei bereziki, zenbait enpresari kalte ekonomiko handiak eragiteraino.

CEN-Nafarroako Enpresa Konfederazioaren eta LASEME-Lizarrako Merindadeko Enpresen Elkartearen ordezkariak Garapen Ekonomikorako Batzordean egindako agerraldian azaldu zutenaz, azpiegitura elektriko egokirik ez izateagatik –bereziki, behar adinako potentziako azpiestazio elektriko bat–, inbertsio handiak egiteko asmoa zuten enpresek alde egin dute eta ezinezkoa bihurtu da enpresa berriak eskualdean paratzea.

Gainera, 90 Km-ko hedadurako linea bat denez, transformadorerik edo tarteko estaziorik gabekoa eta gehienez ere 66 kV-koa, eragotzi egiten da energia berriztagarrien sorkuntza-parkeak ezartzea eta garatzea. Gaur egungoak linea ezegonkorrak dira, eta gainera ezin dute ekoiztiko energiaren gainkarga onartu.

Espanian egin beharreko azpiegituren plangintzan, zeina Ministroen Kontseiluak berretsi baitu eta REE-Red Eléctrica Españolako lehendakari Beatriz Corredorrek oraintsu Nafarroara egindako bisita batean jendaurrean azaldu baitu, REEek jada aurreikusita dauka merindaderako azpiestazio bat paratzea, 220 kV-ko potentziako sare bat. Lanak eta Nafarroako Gobernuan egin beharreko administrazio-izapidetzea azkar gauzatu balira, 2023rako bukatuta egon liteke.

Horregatik guztiagatik, sozialisten talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, ukitutako departamentuek egin daitezkeen eta beharrezkoak diren zuzemen guztiak egin ditzaten, Estellerriko Merindadean hain beharrezkoak diren eta hainbestetan eskatu

diren azpiegitura elektrikoak ezartzearen REEK planifikatutako lanak albait lasterren egitera bideratutako administrazio-izapideak nahiz txosten eta diligentzien epeak azkartzeko eta murrizteko.

Iruñean, 2021eko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabeyen

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 8/2020 Errege Lege-dekretua lehenbailehen betearaz dezan.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 8/2020 Errege Lege-dekretua lehenbailehen betearaz dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumenerako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumenerako Batzordean eztabaidatzeko:

Legea eskuan, abeltzainek ezin dute dirua galduz saldu; izan ere, 8/2020 Errege Lege-dekretuak klausula bat ezarri zuen esne-sektoreko kontratuetan, zeinean zehazten baitzen abeltzainaren eta eroslearen artean hitzartutako prezioak "produktzioaren egiazko kostuak" estali behar dituela. Hau da, debekatu egiten zuen atalase horretatik beheitiko prezioak ezartzea. Halere, negoziazio-ahalmenik gabeko ustiategi asko behartuta daude

baldintza horiek betetzen ez dituzten kontratuak ixtera esne-industriarekin.

Espainiako esne-ekoizleen erakunderik handiena den AGAPROL-Abeltzain esne-ekoizleen Elkartearen kalkuluen arabera, produktzio-kostua 36 zentimotik goitikoa da esne-litro bakoitzeko, eta zenbateko horrek ez ditu zenbait faktore jasotzen; adibidez, animaliak elikatzeko erabiltzen diren lehengaien prezioen igoera. Esnea bi egun bakarrik egon daiteke hotz-tangatan biltegitururik, eta horrek irteerarik gabeko egoeran jartzen ditu abeltzainak.

Nekazaritza Ministerioaren arabera, produktzio-kostu horiek 371,5 eurokoak dira tona bakoitzeko batez beste. Abeltzainek 2018an, 2019an eta 2020an batez beste galtzen zituzten 29 euroak apurka-apurka igotzen joan dira, tona bakoitzeko 52 eurokoak izateraino.

Nafarroan, egoera horrek berekin dakar, familia-ustiategi txikien sakabanaketarekin batera, abeltzainen kopuruak nabarmen behera egitea. Bost urtean abeltegien % 25 galdu ditugu, eta gazteek zalantza egiten dute beren produktuaren balioa aitortzen ez den sektore batean sartu aitzin.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. 8/2020 Errege Lege-dekretua lehenbailehen betearaz dezan.

2. Esne-sektorea hezi eta harekin lan egin dezan.

3. Esne-sektorearen plan estrategikoa taxutu dezan.

4. Berariazko laguntzen lerro bat ezar dezan, produkzio-kostuaren eta salmenta-prezioaren arteko aldeak eragindako galerak estaltzeko, harik eta merkatuak onartu arte gutxieneko salmenta-prezioa eta produkzio-kostuarena berdinak izatea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Daniel Ortegaren gobernu sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldezten.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Daniel Ortegaren gobernu sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten baitie etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldezten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Daniel Ortegaren gobernu sandinistak Nikaraguako herriaren aurka baliatutako errepresioa, eta nikaraguarrei dei egiten die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak aldezten.

Daniel Ortega buru duen Gobernu sandinista sistematikoki urratzen ari da Nikaraguako herritarren giza eskubideak. 2018tik hasita, Nazio Askapenerako Fronte Sandinistako paramilitarrek eta poliziak basaki erreprimitu dituzte haren kontrako manifestazio baketsuak. Horretarako, Nikaraguako Armadaren laguntza zuzena ere izan dute, bai eta Mendebaldeko iritzi publikoaren parte handi baten isiltasun konplizea ere.

Errepresio horren ondorioz, ehunka pertsona hil, milaka gehiago espetxeratu eta tortura nahiz bortxaketa ugari gertatu dira. Erkidego indigenak eta afrikar jatorrikoak izan dira sandinistek gehien kolpatu dituztenak. Ehun mila nikaraguar inguruk alde egin behar izan dute bere herrialdetik. Ikasleak unibertsitatetik egotzi dituzte protestetan parte hartzeagatik, eta osasun-arloko langileak lanetik bota dituzte zauritutako manifestariei osasun laguntza eman izana leporatuta. Gobernu sandinistak, gainera, giza eskubideak aldezten dituzten erakundeen aurkako jazarpen judizial eta ekonomikoa abiarazi du. Horri guztiari gehitu behar zaio apetaren arabera atxilotu dituztela orain dela gutxi lider feministak nahiz beren burua heldu den urtean eginen diren hauteskundeetako aurrehautagai izateko aurkeztutako hainbat pertsona.

Errepresio hori dela-eta, zenbait erakundek eskatu dute, Human Right Watchs-ek kasu, nazioarteak erregimenari zigorrak ezar diezazkion, demokraziaren aurkako erasoei galga jarri saiatzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu Nikaraguako errepresioa eta giza eskubideen urraketak, eta bere elkartasuna adierazten dio Nikaraguako herriari, bereziki gurean bizi diren nikaraguarrei.

2. Nafarroako Parlamentuak Ortegaren Gobernu sandinistaren aurkako nazioarteko zehapenak jartzea eskatzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak herritarrei eskatzen die etsi gabe jarrai dezaten askatasun demokratikoak eta eskubide sozialak modu baketsuan aldeztu.

Iruñean, 2021eko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da 14/2015 Foru Legean jaso dezan emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat, gurasoek edo seme-alabek familia-ingurunetik kanpo emakume baten aurka baliatutako indarkeria fisiko, psikologiko, ekonomiko edo sexuala dela-eta.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 14/2015 Foru Legean jaso dezan emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen bat, gurasoek edo seme-alabek familia-ingurunetik kanpo emakume baten aurka baliatutako indarkeria fisiko, psikologiko, ekonomiko edo sexuala dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du,

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean eztabaidatzeko:

Zioen azalpena:

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea aurrerapauso handia da genero-indarkeriaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan.

Jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa izan zen, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko tresna juridiko bat ekarri zuelako, baina ez dio behar adina heltzen etxeko ingurunetik kanpo familiartekoei baliatutako indarkeriaren auziari. Bizikide ez diren gurasoek edo seme-alabek jazarritako emakumeen kasua da, hain zuzen ere.

Egungo legeak ez ditu pertsona horiek behar adina babesten. Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, 14/2015 Foru Legearen 3. artikuluan –Emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa eta motak–, 2. puntuan, emakumeen kontrako indarkeria mota bat gehiago jaso dadin, gurasoek edo seme-alabek familia-ingurunetik kanpo emakume baten aurka baliatutako indarkeria fisiko, psikologiko, ekonomiko edo sexuala dela-eta.

Iruñean, 2021eko ekainaren 23an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitio Nafarroako kultur sektoreari.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko ekainaren 23an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak premiatzen du:

Nafarroako erakunde guztiei:

– Uda osoan protokolo/semaforo egonkor bat egon dadin, toki entitateei jarraibide argiak eman dizkiena, oinarritzat harturik 2021eko uztailaren 1a baino lehenagoko egoera eta Osasun Publikoaren Institutuak emandako irizpideak, kultur jardueren programazioa eta antolaketa erraztearren. Horren zehaztapenean kulturaren sektoreak parte hartu ahalko du.

– Barne Departamentuaren, Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen artean koordinazioa egon dadin, kultur jarduerak segurtasun-baldintzetan egin daitezten bermatzeko.

– Nafar profesionalen eta irabazi-asmorik gabeko elkarten kontrataziorako pizgarriak eman daitezten, herri- eta toki-kulturaren adierazpideen garapena indartzeko, programa propioen bitartez.

– Nafar folklorearen mahaia sor dadin, herri-kulturaren alde iraunkortasun-asmoz diharduten elkarte, federazio eta taldeak bilduko dituen.

– Gune berriak apailatzea, irekiak, alternatibak, kultur programaziorako erabilera eskasa izan dutenak. Horretarako, erakundeek burokrasia sinpletzeko salbuespenezko neurriak hartuko dituzte, orobat salbuespenezkoa den egoera batean.

– Deskontu-bonuen kanpaina bat taxutu dadin, Nafarroako lurralde osoan kultur kontsumoa pizteko.

Nafarroako Gobernuari:

– Zuzeneko solaskidetzarako bide bat ezar dezan, toki-administrazioetako uda-programazio kulturalari buruz aholku emateko edo zalantzak argitzeko.

– Herri txikietan kultur proposamen askotarikoa eskain dadin.

– Katalogo eguneratu bat jar dadin toki-entitateen eskura kulturaren atari digitalaren bitartez, Nafarroako hirugarren sektoreko kultur jardueren kontratazioa errazteko eta pizteko.

– COVID-19aren pandemiaren ondorioz jasandako galerengatiko laguntza ekonomikoak kultur sektorearentzat aktibatuzko konpromisoa.

2. Halaber erabaki du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez toki entitateei gomendatzea honako neurriak har ditzaten:

– Udan zehar kultur programazioa areagotu dezaten Nafarroako herrietan.

– Herriko festetarako aurrekontua bete dadin, hori bideratuz udan zeharreko kultur arloko programazio eta jardueretara.

– Gune publiko, antzoki eta entzunaretoetarako sarbidea erraztea Nafarroako kultur elkarte eta enpresei.

3. Adierazpen instituzional honen gaztelaniazko eta euskarazko irakurraldi publikoa egingen da Legebiltzarraren egoitzako atalondoan, 2021eko ekainaren 24an, 09:30ean.” (10-21/DEC-00041).

Iruñean, 2021eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, Bihotzaren Arloan ustez izandako delitua dela-eta Osasun Departamentuak izandako jokabideari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, Bihotzaren Arloan ustez izandako delitua dela-eta Osasun Departamentuak izandako jokabideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer erabaki hartu zenuten Bihotzaren Arloan ustez delitu bat gertatu izanaren berri izan zenute-nean?

Zergatik ez zenioten Fiskaltzari horren berri eman?

Salaketa egin zuen medikuaren eta O-NOZeko profesionalen zuzendariaren arteko bilera (PES000174 galderari emandako erantzunean kontatua) egin ostean eta Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaileari horren berri eman ostean:

Gertakarien berri izatean zergatik baztertu zen informazio erreserbatuko espediente bat berehala abiaraztea auzi hain larria argitzeko?

Zer erabaki hartu ziren eta nork hartu zituen erabaki horiek?

Gertakariak salatu zituen medikuak, profesionalen zuzendariak eta Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaileak 2020ko uztailaren 23an izandako bilerak zer eduki izan zuen?

Bilera horretan, Bihotzaren Arloan ustezko eroskeriagatiko funtzionario-eroskeriaren delitu bat egon zitekeela jakinarazi al zuen salaketa egin zuen medikuak?

Hala baldin bada, bileraren ondoren, Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaileak nori jakinarazi zizkion gertakariak?

Nork agindu zuen kanpoko enpresa bat kontratatzea esku-hartze/errazte prozesu bat egiteko?

Zerk eragin zuen agindu hori egitea eta nork planteatu edota erabaki zuen?

Nafarroako Gobernuko zer kargudunek zeukaten gertakarien berri?

Noiztik?

Nafarroako Gobernuko arduradun horietako bakoitzak zer erabaki hartu zuen gertakarien berri izan ostean?

Gertakarien berri izan baldin bazuten, zergatik ez zioten Fiskaltzari horren berri eman eta zergatik ez zuten kasuko salaketa jarri?

PES000174 galderari emandako erantzunean esaten da, salaketa egin zuen medikuaren lan-jardueran izan litezkeen aldaketak direla-eta, kontratatutako enpresak eta Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak egindako "gomendioei" jarraikiz "bi profesionali eragiten dizkieten aldaketak" egin direla.

Salaketa egin zuen medikua al da "aldaketak" jasan dituen bi pertsona horietako bat?

Noiz jakinarazi zitzaizkien aldaketa horiek?
Zertan dautza?

Hori baino lehen, mediku horrek bestelako aldaketarik jasan al zuen (esaterako, lanpostuak berresleitzea, ordutegiak aldatzea...)?

Hala baldin bada, aldaketa horiek noiz egin ziren eta zertan dautza?

Erabakitako aldaketek ukitzen duten beste profesionalak zer ardura du?

Zertan dautza aldaketak profesional horren kasuan? Zergatik erabaki zen aldaketa horiek egitea?

Aldaketa horiek ba al dute zerikusirik ustezko funtzionario-eroskeriaren delituagatik egindako salaketarekin?

Baiezkoan, zein da horien arteko harremana?

Iruñean, 2021eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, nazioartean mugitzeko beka bat lortu duten ikasleei COVID-19aren aurkako txertoa jartzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, nazioartean mugitzeko beka bat lortu duten ikasleei COVID-19aren aurkako txertoa jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cris-

tina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Nafarroako Gobernuak noiz jarriko die txertoa nazioartean mugitzeko beka bat lortu duten ikasleei? Ikasle horiek nazioartean mugitzeko beka horiek guztiak mantendu eta baliatu ahal izanen dituztela bermatuko al duzue, COVID-19aren aurkako txertoaren muga arazo izan gabe?

2. Nafarroako Gobernuak noiz jarriko die txertoa gaixo kronikoei? Adina izanen al da irizpide bakarra txertoa jartzeko?

3. Nafarroako Gobernuak noiz jarriko die txertoa mendekotasun handia onartu ez zaien desgaituei? Adina izanen al da irizpide bakarra txertoa jartzeko?

Iruñean, 2021eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako eta Errioxako gobernuek osasun-arloan sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako eta Errioxako gobernuek osasun-arloan sinatutako hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cris-

tina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

2021eko ekainaren 2an, Diario de Noticias egunkariak honako titular hau eman zuen Nafarroako eta Errioxako gobernuek osasun arloan sinatutako hitzarmena dela-eta: "150 nafarri egiten ahalko zaie ebakuntza urtero Errioxan, osasun arloko hitzarmenari esker".

1. Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak titular hori berresten al du?

2. Hitzarmen horri esker Errioxan foru erkidegoko biztanleei emanen zaizkien osasun prestazioen artean ba al dago prestazio zehatz berririk? Baiezkoan, zein da zehatz-mehatz eta nori emanen zaio?

Iruñean, 2021eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroan espezie eta bektore inbaditzaileek osasunerako dakarten arriskua kontrolatzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroan espezie eta bektore inbaditzaileek osasunerako dakarten arriskua kontrolatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroan zenbait gaixotasun eragin ditzaizketen espezie eta bektore inbaditzaileak daude; pandemia kudeatzeko neurrietatik kanpo geratu dira profesional-mota zehatz batzuk, beren ezagutza epidemiologikoekin lagundu zezaketena; zenbait autonomia erkidegotan –esate baterako, Andaluzian– gizakienganako jausia egin duen eltxo batek eragindako infekzioa duten pertsonak daudela jada, bizi dugun klima-aldaketa dela-eta hedatzen ari dena, eta ez dago beste

espezie batzuekiko kontrolik. Hori dena kontuan hartuta,

Nafarroako Gobernuak zer egiturak jorratzen du berariaz espezie exotikoetatik eta bestelako batzuetatik osasunari begira heldu diren arrisku horien kontrola? Nola koordinatzen dira gaixota-

sun infekzioso berrien gaineko jarduketak, erronka berri horiei aurre egiteko profesional espezializatuak edukitzeko?

Iruñean, 2021eko ekainaren 24an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera COVID-19aren aurkako txertatze-prozesuari buruzkoa zen, eta 2021eko

urtarrilaren 12ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00009).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, sexu-transmisiozko infekzioen kasuak igotzea ekiditeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera sexu-transmisiozko infekzioen kasuak igotzea ekiditeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa zen, eta 2020ko

abuztuaren 20ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00227).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, lantokiak ikuskatzeko eta langileen osasunerako eskubidea bermatzeko neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera lantokiak ikuskatzeko eta langileen osasunerako eskubidea

bermatzeko neurriei buruzkoa zen, eta 2020ko irailaren 8ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00232).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, foruzainen lanpostuen deialdiak zabaltzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera foruzainen lanpostuen deialdiak zabaltzeari buruzkoa zen, eta

2020ko azaroaren 17ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/POR-00371).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, herritarrentzat Oinarrizko Osasun Laguntza eskuragarri dagoela bermatzeko neurriei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera herritarrentzat Oinarrizko Osasun Laguntza eskuragarri dagoela bermatzeko neurriei buruzkoa zen, eta 2021eko

martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00163).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Mutiloako instalazio berrietan mantenduko diren Refenako langileei eta egiturari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Mutiloako instalazio berrietan mantenduko diren Refenako langi-

leei eta egiturari buruzkoa zen, eta 2021eko martxoaren 31ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00174).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

